

[Eusk/Cast] Carta abierta en apoyo a los académicos detenidos en Turquía

LAURA MINTEGI ETA JUAN HERNÁNDEZ :: 12/02/2016

En respuesta a la campaña internacional de solidaridad, más de 200 personas vinculadas a la Educación y Universidades de Euskal Herria hemos firmado esta declaración

Turkian atxilotu dituzten akademikoen aldeko adierazpena

Turkiako Hezkuntza arloko ehunka lankidek gobernuaren aldetik jasaten ari diren jazarpena salatzeko eta gure elkartasuna adierazteko nazioartean zabaltzen ari den kanpainarekin bat eginik, Euskal Herriko Unibertsitateetan eta Hezkuntzan lan egiten dugun 200 lankide baino gehiagok ondorengo adierazpen hau sinatu dugu

Turkiako eta Kurdistango “Bakearen Aldeko” 1.128 akademikok “ez gara hilketa hauen parte izango” izenburu zuen adierazpena sinatu zuten iragan urtarriaren 11n. Bertan, herri kurduaren aurkako oldarkeria bertan behera uzteko eskaria egin zioten Gobernu Turkiarrari.

Adierazpen hau kaleratu zutenetik, akademiko hauek Turkiako Gobernuaren eta bere politikaren aldekoen gehiegikeria eta biolentzia jasan dute etengabe.

Recep Tayyip Erdogan Turkiako Presidenteak egin dituen adierazpenetan akademiko hauek salatu eta mehatxatu ditu publikoki. Ondoren, fiskaltzak 1.128 sinatzaileen aurkako prozesuak hasi ditu. Honakoak dira haien aurkako karguak: talde terroristaren aldeko propaganda egitea eta Turkiako Nazioa, Turkiako Errepublikaren Estatua, Turkiako Nazio-Asanblada Gorena, Turkiako Errepublikaren Gobernua eta Estatuaren epaile-organoak iraintzea.

Akusazio honengatik 22 akademiko atxilotuak izan dira momentuz. Erruduntzat joz gero, atxilotuek urtebetetako bost urte arteko espetxe zigorra bete beharko lukete. Hainbat lege-adituk, atxiloketa hauen zilegitasuna zalantzan jartzeaz gain, legez kanpotzat jo dituzte. Bestalde, Turkiako indar faxistek “sinatzaileen odola isuriko dutela” bezalako mehatxu larriak kaleratu dituzte, Turkiako Gobernuaren aldekoek eta indar nazionalistek hedabideetan eta sare sozialeten egin dituzten sinatzaileen salaketa publikoak aitzakitzat hartuta.

Honez gain, adierazpena sinatu duten askok beren unibertsitateen diziplina-proceduriei eta kaleratzeei aurre egin beharko diete.

Bidegabekeri hau burutzen duen bitartean, Turkiako Gobernuak etengabe eusten dio herri kurduaren aurkako sarraskiari (iragan abenduan soilik, Turkiako armadak Kurdistanen burutu zituen ekintzetan 100 kurdu baino gehiago hil zituen). Honekin batera, 2015eko abuztutik 52 etxeratze-agindu ezarri dira Turkiako hegoekialdean, milioi bat gora pertsona kaltetu dituztenak. Testuinguru honetan, askatasun akademikoarekiko errepresio izugarri hau Turkiako Estatuaren autoritarismo sakonaren adibidea baino ez da, akademikoen aurkako erasoez gain, kazetari, abokatu eta ekintzaileen atxiloketa eta erailketak eragiten

baitu egunez egun.

Alde batetik, dei egiten diogu Turkiako Gobernuari adierazpen-askatasuna eta askatasun akademikoa errespetatu ditzan, halaber, atxilotuak askatu eta bere kontrako karguak berehala erretiratu ditzan.

Akademiko hauek bakearen alde egin zuten deia gurea egin eta berresten dugu. Bestetik, adierazpen honen bidez, Turkiako Gobernua herri kurduaren aurka burutzen ari den sarraski politika bertan behera uzteria dei egiten dugu.

Laura Mintegi, Juan Hernández (Unibertsitateko irakasleak)

Carta abierta en apoyo a los académicos detenidos en Turquía

En respuesta a la campaña internacional de solidaridad y denuncia del acoso e intimidación al que están siendo sometidas cientos de personas del ámbito educativo en Turquía por parte del gobierno, más de 200 personas vinculadas a la Educación y Universidades de Euskal Herria hemos firmado esta declaración.

1.128 ‘Académicos por la Paz’ personas turcas y kurdas firmaron originalmente la declaración “No vamos a ser parte de este crimen”, pidiendo al gobierno turco el cese de las hostilidades contra la población kurda. Quienes firmaron esta declaración han sido objeto de una campaña sostenida de abuso y violencia por el Estado turco y sus partidarios.

En discursos recientes, el presidente Recep Tayyip Erdogan, ha denunciado y amenazado públicamente a quienes firmaron la declaración.

Posteriormente, los fiscales han comenzado los procedimientos para acusar a los 1.128 firmantes originales de “hacer propaganda de una organización terrorista” y “abiertamente insultar a la nación turca, el Estado de la República de Turquía, la Gran Asamblea Nacional de Turquía, el Gobierno de la República de Turquía y los órganos judiciales del Estado”.

Esto ha dado lugar a la detención de más de 20 personas vinculadas al ámbito académico. Si se les declarase culpables de estos cargos podrían enfrentarse de uno a cinco años de prisión. La legitimidad de las detenciones ya ha sido cuestionada por expertos legales prominentes y se describe como decisiones “extra-legales”.

Las personas que firmaron la declaración también han sido expuestas públicamente en la prensa y redes sociales por partidarios del gobierno y los nacionalistas, dando lugar a temores de represalias por parte de los fascistas que han amenazado con “derramar la sangre” de los firmantes. Por otro lado, quienes se adhieran a la declaración también se enfrentan a procedimientos disciplinarios y los posibles despidos de sus instituciones.

Estos actos injustos se están desarrollando en un contexto de continua violencia estatal contra la población kurda, sólo en diciembre más de 100 personas kurdas murieron como resultado de las operaciones militares llevadas a cabo por el Estado turco. Desde agosto de

2015 han sido 52 los toques de queda impuestos a más de un millón de habitantes en el sureste de Turquía. En tal contexto, la fuerte represión a la libertad académica constituye otra muestra del profundo autoritarismo del Estado turco que incluye ataques no sólo a académicos, sino también el encarcelamiento y muertes de periodistas, abogados y activistas.

Hacemos un llamado al gobierno de Turquía a retirar los cargos inmediatamente y a poner en libertad a los encarcelados, respetando los principios de la libertad académica y la libertad de expresión. Reafirmamos nuestro apoyo a la llamada a la Paz realizada por los académicos, y exigimos al Gobierno turco el cese de hostilidades contra la población kurda.

Laura Mintegi, Juan Hernández (Profesores de la UPV/EHU)

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-carta-abierta-en>